

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

*Nafarroako Gobernuak proposamen berriak prestatu ditu datorren asterako: kontzertuak, zinema, tailerrak, erakusketak eta bisitak*

Astelehena, 2018.eko azaroak 26

Nafarroako Filmotekak eskaintza anitza dakar aste honetan. [Hasteko](#), Hendaiaiko Zinema Jaialdian garaile atera diren laburmetrailak eskainiko dira astelehenean. Gainera, astero bezala, zinema eskaintza hirukoitza: asteartean “Trinta lumes”; asteazkenean, “Lawrence de Arabaia”; eta ostiralean eta saio bikoitzean “Wallay”.

Halaber, Arantxa Iturbe eta Irati Jimenez idazleak Nafarroako Liburutegian egongo dira “Literatura, feminismoa eta beste gauza batzuei buruzko elkarrizketa” eskainiz. Liburutegian bertan, eta astero bezala, haurrentzako “Ongi etorri ipuinetara” tailerra ospatuko da. Era berean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian “Zientzien hotsak” zikloa aurrera doa eta, Javier Tejadak “Fisika eta musika. Unibertsoa, materia eta uhinak” mintzaldia eskainiko du asteazkenean.

Musikari dagokionez, Katia eta Marielle Labèque ahizpak dira aste honetako izarrak. Beren azken lana Baluartean aurkeztuko dute asteazkenean, Caro Mena musikari handia lagun.

Huarte Zentroan badator kultura uholdea. Hasteko, bi egoitzetan egin den lana aurkeztuko da jendaurrean: “Sol y Sombra” eta “Ob Skena”. Gainera, Vaka proiektua bueltan da eta asteazkenean ospatuko da. Ez hori bakarrik, igandean, soinu ikerketa proposamen batek zeharkatuko du Huarte: Zarys Falconek eta losu Martik prestatu duten, “Mianimal” ikuskizuna. Bukatzeko, “Work in Process” erakusketa zabalik dirau.



Arantxa Iturbe eta Irati Jimenez idazleek gaur arratsaldean Nafarroako liburutegian literatura, feminismo eta beste gaietarako buruz hitz egingo dute.

Bestalde, Sakanako paisai eta baso ondarea goraiatzeko prestatu zen egitaraua igandean amaitzen da. Aste honetan haurrentzako tailerrak antolatu dira inguruko animala eta landareak aurkezteko eta ikuskizun poetiko batekin emango da bukatutzat aurtengo proposamena.

Erakusketen alorrean, bada prosamen berri bat ikusgai Nafarroako Liburutegian, "Larruaren sektorea Bangladeshen". Argazki erakusketa hau ehungintza industriaren baldintza kaxkarrak salatzen prestatu da. Gisa berean, hamaika erakuspen dira zabalik: Karlismoaren Museoan "Karlismoa zineman"; "Macla, mamua, bismuto, vicario" Oteiza Museoan; "Dora Salazar. Inspiración. Espiración. Expiación" Nafarroako Museoko Kaperan; eta "Izaba NANen" zein "Baxenabarre, lurralde berezia" Nafarroako Errege Artxibo Nagusian.

Bukatzeko, bisita berriak antolatu dira Iruñeko katedraleko klaustroan egiten ari diren konpontze lanak bisitatzeko (igandean).



Asteazken honetan Nafarroako Filmotekan emanen den "Lawrence de Arabia" filmaren fotograma.